



**Puntapax zubiko
bidea itxita egongo da
hilabetez**

**Udalbatza
telematikoki
batu da lehen aldiz**

**Ziortzako kanpaldia,
bertan behera**



**Ile-apaindegia berriz ere zabalik:
“Lasai etor zaitezke berriz guregana”**

Noaua!k
Udajolas-erako
lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta
begiraleak behar ditu,
uztailean lan egiteko.

PROFILA:
2 hilabeteko esperientzia
Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua
EGA edo baliokidea den agiria
Sexu delitua egiteagatikko aurrekari
penalak ez dituela egiaztatzen
duen ziurtagiria.
Usurbildarrek lehentasuna

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3, Usurbil edo

elkartea@noaua.eus

Curriculum-a bidaltzeko azken eguna: maiatzak 10

noaua



udajolas

2020

udaleku irekiak



IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

maiatzaren 1etik 15era (biak barne)

www.noaua.eus/bereziak/udajolas



noaua

Albiste iruditan

Puntapax zubitik Kalezarrerako bidea itxita egongo da hilabetez

Ugartondon eraikitzen ari diren etxebizitzaren eremuan lanean jarraitzen dute. Orain arte semaforo batek gidatu du ibilgailuen joan etorria. Puntapax kaletik Haur Eskolara igotzeko nahiz Pikaola aldetik Puntapax aldera jaisteko bidez ari gara. Udalak ohartarazi duenez, aipatu pasabide hau hilabetez itxita egongo da obregatik.

Neurri honek ibilgailuen joan etorria aldaraziko du. "Troia aldatatik eta Belmonte kaletik bideratuko da trafikoa, bi norabideetan. Bandoa jarriko dute datozen egunetan auzoko etxebizitzetan, auzotarrak jakinaren gainean egon daitezten".



Ugartondon eraikitzen ari diren etxebizitzaren eremuan lanean jarraitzen dute. Argazkia: Usurbilgo Udalak.

Laburrean

Positiboen kopuruak bere horretan darrai

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila egunez egun Covid-19 birusari buruzko datuak eskaintzen hasi zenetik hona, 8 dira Usurbilen diagnostikatutako kasuak.

Covid19-aren eragina aztertzeke bi ikerlan

Espainiako Gobernuak abiatu duen ikerlanerako 90.000 pertsona deituko dituzte probak egitera, EAE-n 5.000 lagun. Eusko Jaurlaritzak bestalde, "inmunitate" mapa ezagutzeko ikerlana abiatu du.

Oharra berrogeialdian daudenentzat

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Udalari horren berri emateak: 669 87 40 22.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Imanol Ubeda

Kirolariek desiratutako eguna

Astunak are astunago bilakatu dira. Hori izan da konfinamenduan zehar atera dudana ondorio argi bakarra. Eta astunen klub txit agurgarrian, kirolzaleek puntu asko irabazi dituzte asteotan. Etxealdiaren 49. egunean iritsi zaie egun handia: Maiatzak 2. Larunbata da. Paseorako bizikleta hartu eta Santuenea aldera jo dugu. Ea zer topatzen dugun bidean.

9:30. Kirola egiteko giro ederra dago. Santueneko zubiaren ondoan jende ugari batu da: batzuk korrika, gutxi batzuk ipar-martxa egiten; mendiko biziketan nahiz errepidekoan; patinetan edota oinez... Santueneko sarrerak 'Km0' baten itxura du. Batetik, Aginaga-Ma-pil aldetik datozenak. Eta bes-

tetik, Usurbil aldera doazenak. Zubietarako errepidean ere lagun asko dabilta joan-etorrian. Gure begien aurrean, bi txirrindulari abiatu dira San Estebango bidean gora.

Santueneko semaforo ondoko bus geltokian kuadrilatxo bat batu da. Aspaldian ikusi gabeko lagunak dirudite, berriketa atseginetan. Egun haue-tan bideo-deiak nahiz telefono bidezko solasaldiak ugari izan badira ere, aurrez aurreko topaketa baten parekorik ez da. Bistan denez. Inguruari begiratzeari utzi eta guk ere Zubietarako bidea hartu dugu.

9:35. Amiri ondoan gaude. Egun batzuk lehenago, presako hotsa baino ez zen entzuten hemen. Orain kirolarien arnasetuekin nahasten da presaren burrunba atsegina.

9:37. Etxetxo parean jabetu gara: sagastiak loretan dira. Maiatza hemen da.

9:39. Alkortaenea inguruan gizon bat ikusi dugu egurra puskatan ebakitzen. Negurako prestatzen hasiak ote dira?

9:40 Iturritxon eta Bide-Ondon, karabanak errepide bazterrean aparkatuta. Geldi. Asfaltora noiz itzuliko diren zain.

9:42 Lizarraga baserrira iritsi gara. Larunbata da baina beharginek lanean segitzen dute. Berritze lanak oso aurreratuta dituzte. Txukun geratzen ari da.

Errepidearen bestaldean lurra goldatzen ari dira. Traktoretxo batekin ari da baserritarra.

9:44. Errepidea utzi eta Zubietako "kaxkoan" murgildu gara, bidegorriari jarraituz. Errepideko zikloturistikar

gabe, askoz lasaiago dago bidea orain.

Zubietako Haur Eskolako jolas-parkea belarrak janda dago. Aldameneko baratzeak, ordea, oso itxura ona du. Tomatea, baina, porrua, tipulina, uraza... Uzta polita datorkie.

9:45 Almandegin geldialdixto bat egin dugu. Covid-19 birusaren aurreko garaian, baten bat terrazan egongo zen ikusmiran. Errebote plazako petrilean, bestela. Orain, ostatutako ateak itxita daude eta Errebote plaza inguruan ez dago inor.

9:50 Hipodromorako bidean, oinezkoak dira nagusi. Laster amaituko zaie "kirola" egiteko lehen tarte. Iluntzeko 20:00etan hasiko zaie bigarren. Astunen klubekoak apaltzeko balio badu, gaitzerdi.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

Ika-mika

Usurbilgo sokamuturrera ganadua ekartzen duen ganadutegiaren etorkizuna airean da

Leizarran ganadutegia Iztia-Debako mendietan finkatua dagoen ganadutegi bat da, Leizarran baserrian hain zuzen. Estatu mailan hainbat sari jasotako ganadutegia da eta Usurbil herriarekin harreman sendoa du. Urteetan zehar daramatza Usurbilgo Santixabeletara eta auzoetako festetara zezanak, bigantxak eta poniak ekartzen giro paregabea sortuz. Festetako protagonista bihurtzen dira bai jartzen diren orduan jarrita eta ikusle pila erakartzen dituzte hitzordu hauetara.

Covid19-a ere iritsi da sektore honetara eta ganadu suharraren ganaduzaleak ez dira

salbuespena izan. Leizarran ganadutegia gutxi gorabehera ehun abelburuz osatuta dagoen ganadutegi bat da eta urte guztian zehar zaindu eta elikatu behar dituzte ehun animalia horiek gau eta egun. Animalien elikadura, saneamenduak, albaitaritza zerbitzuak, eremuaren mantentze lanak... dakartzaten gastuei aurre egiteko diru-sarreraren ehuneko ehuna udan herriz herri egindako ekitaldietatik ateratzen dute eta Covid19-aren ondorioz diru sarrerara hauek hutsean geldituko dira. Izan ere, Euskal Herriko festa guztiak bertan behera edo kolokan gelditu dira, Usurbilgo Santixabelak barne, eta gana-

duzaleen egoera ekonomikoa kaltetua izan da zuzenean. Gauzak horrela, Leizarran ganadutegiak bi urteko geldialdiari egin beharko dio aurre, lehengo udatik ez baitute diru sarrerarik izan eta egoera honek hurrengo udara arte iraungo duela aurreikusten baita.

Nahiz eta beraien aldetik guztia jarri, egoera honek ezinezkoa egiten die ganaduzaleei aurrera egitea eta arazo honen ondorioz azken egunetan erabaki gogorak hartu behar izan dituzte. Urte askotan zehar edukitako animalia batzuk saltzera edo hiltzietara bideratzera behartu ditu Covid19-ak sortutako egoera larri

honek eta honi irtenbide bat eman ezean kalteek handiagoak izaten jarraituko dute.

Zehazki 10 dira Leizarran ganadutegiaren egoera berdinean dauden euskal ganaduzaleak eta irtenbide baten premia dute beraiek urte askotan eraikitako ganadutegiak ez desagerrarazteko. Laguntzak edo soluzioek iristen iraungo duen denborak paper garrantzitsua jokatuko du eta ganaduzaleek ahalik eta azkarren izatea espero dute egoera honi buelta eman eta Usurbil bezalako herrietara haien animaliak eramateko.

Julen Lertxundi,
Euskal Zezenzale Elkarte.

Ziortzako udako kanpaldia, bertan behera

Bizi dugun egoeran “kanpaldia antolatzeak ekar ditzakeen ondorioak aztertu ondoren, kanpaldia bertan behera uztea erabaki dugu”. Ziortza Gazte Elkartek dioen bezala, “pandemia honen aurrean arduraz jokatzeari dagokigu”. Hala ere, udaz gozatzeko beste alternatiba batzuk aztertzen hasi direla ohartarazi dute.

NOAUA!ra igorri duten prentsa-oharrean adierazi dutenez, “Peñaloscintoseko biztanleriaren gehiengoa arrisku taldekoa da eta herriarekin dugun harremanak bultzatu gaitu haiek arriskuan ez jartzera”.

“Kanpaldia 2020”

“Ziortza Gazte Elkartek 2020ko kanpaldia bertan behera uztea erabaki du. Bizitzaren ari garen egoera eta Kanpaldia antolatzeak ekar ditzakeen ondorioak aztertu ondoren hartu dugu erabaki hau, pandemia honen aurrean arduraz jokatzeari baitagokigu.

Ezinezkoa egiten zaigu distantziamendu eta higie-neurriak betetzeko gai izango garela bermatzea. Horrez gain, Peñaloscintoseko herriari zor diogun errespetua kontuan izai-



“Urtero bezala, kanpaldi eder bat prestatzeko lanean ari ginen, baina gure esku ez dauden faktoreek behartuta hartu dugu erabaki hau”.

ZIORTZA GAZTE ELKARTEA

**“Ezinezkoa egiten
zaigu distantziamendu
eta higie-neurriak
betetzeko gai izango
garela bermatzea”**

nik, erabaki zuzenena kanpaldia bertan behera uztea dela deritzogu, bertako biztanleriaren gehiengoa arrisku taldekoa baita. Bertako herriarekin dugun harremanak bultzatu gaitu haiek arriskuan ez jartzera.

Eskerrak eman nahi dizkiogu kanpaldian parte hartzera

animatu zen pertsona orori. Urtero bezala, kanpaldi eder bat prestatzeko lanean ari ginen, baina gure esku ez dauden faktoreek behartuta hartu dugu erabaki hau.

Hala ere, kanpaldia ordezkatzeko alternatibetan pentsatzen hasiak gara, egoera hobetuko balitz eta higie-neurriek ahalbidetuko balute, urtero kanpaldian bezala udaz goza dezagun. Gure esku dagoen guztia egingo dugu hau posible izan dadin.

Barkatu eragozpenak eta mila esker.

Ziortza Gazte Elkartea”.

Garbigunea, berriro zabalik

Ettxeko hainbat hondakin kudeatzeko Atalluko Garbigunea zabalik da berriz ere, ohiko ordutegian. “Garbiguneko arduradunak aforoa une oro kontrolatuko du segurtasun distantziak mantentzen direla ziurtatzeko eta jende-pilaketak saihesteko”, San Marko Mankomunitateak adierazi dutenez. Ordutegi honetan irekiko dute:

■ Astelehenetik ostiralera: 10:15-14:00 / 16:00-19:00.

■ Larunbatak: 9:00-13:30.

San Markoko furgoneta

Ettxeko hondakin arrisku-tsuak biltzeko San Markoren furgoneta ibiltariaren zerbitzuak etenda segiko du. San Marko Mankomunitatearen zerbitzuen gaineko argibide gehiago bide hauetatik jaso daiteke:

■ 943 214 977

■ zerbitzuak@sanmarko.eus



Astelehenetik ostiralera ordutegi honetan zabalduko dute. 10:15-14:00 / 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00etatik 13:30era.

Munalurra-Aranerreka, oinezkoen bide berria

Adin tarte guztietako herritarrek ordu jakinetan etxetik irte-teko baimena duten honetan, kontuan hartzeko albiste baten berri eman du Usurbilgo Udalak. Udal brigadak bide berri bat ireki du behin-behinean; Munalurra Aranerreka-ekin lotzen duena. Oinezkoentzako izango da. Gogoan izan, irte-erretarako ordutegi hau finkatu da:

■ 6:00-10:00 14 urtetik go-

rakoek ariketa fisikoa egin edo paseoa emateko aukera.

■ 10:00-12:00 Behar bereziak dituzten pertsonen edota 70 urtetik gorakoen irteera.

■ 12:00-19:00 14 urtez azpiko-koen irteerak.

■ 19:00-20:00 Behar bereziak dituzten pertsonen edota 70 urtetik gorakoen irteera.

■ 20:00-23:00 14 urtetik gorakoek ariketa fisikoa egin edo paseoa emateko aukera.



Udal brigadak ireki du bidea.

Herriko ile-apaindegia berriz ere zabalik

Koronabirusaren ondorioz, ile-apaindegia eta estetika zentroak itxita egon dira hainbat astez. Gauzek hobera egin dutenez, lanean hasteko moduan dira berriro. “Lasai etor zaitezkeite berriz guregana”, adierazi dute ohar bidez.

Herriko ile-apaindegiek idatzi bat adostu dute eta NOAUA!ra igorri dute. “Prest gara gure betiko lanari ekiteko”, hala diote oharrean:

“Ile-apaindegien atek zabaltzera goaz”

“Larrialdi-egoera hau hasi zenetik itxita egon bagara ere, herriko ile-apaindegien atek zabaltzera goaz.

Hartu beharreko segurtasun neurriak adostu, osasun-baldintza egokiak bermatzen direla ziurtatu, eta prest gara gure betiko lanari ekiteko. Lasai etor zaitezkeite berriz guregana. Beti bezala



“Hartu beharreko segurtasun neurriak adostu eta osasun-baldintza egokiak bermatzen direla ziurtatu ondoren, prest gara gure betiko lanari ekiteko”. Argazkia: Guilherme Petri, Unsplash.

ILE-APAINDEGIAK

“Babes neurriekin bada ere, gertutasuna aurkituko duzue gurean”

gertutasuna aurkituko duzue gurean, babes-neurri egokiekin bada ere.

Egutegia:

■ Bixen eta Elexpe ile-apaindegiek maiatzaren 5ean ireki dute.

■ Gainontzeko guztiek maiatzaren 12an.

Ordutegia:

■ Bixen: Betiko ordutegia.

■ Besteak:

Asteartetik ostegunera:

09:00etatik 15:00etara.

Ostiraletan: 09:00etatik

18:00etara.

Larunbatetan: 08:30etik

14:30era”.

Ile-apaindegiek NOAUA!ra igorritako idatzia.

Lanera bueltatzeko gogoz dira denak

Enar

Enar Estetikan aldaketa dezentte egin dituzte, “baina ez araudi bidez behartu gaituztelako. Guk hala erabakita baizik. Dena martxan jartzea lortu dugu, segurtasun neurri guztiak betez”.

Bezeroak banan bana hartu behar dituzte, beraz, “puntuak izateko eskatzen diegu bezeroei”. Eguna eta ordua eskatzeko, telefonoz edo whatsapp bidez egiteko aholkatzen dute: 943 57 16 80 / 620 852 875 (whatsapp).

Arriaga

Arriagak ez du lantokia egokitu behar izan baina egoera berriaren aurrean neurri berriak hartu behar izan ditu. “Makina

bat erosi dut desinfektatzeko”. Bezeroari ilea moztu eta gero, “guraizeak eta erabilitako materiala desinfektatzeko makina batean sartzen ditut”. 10 minututan listo du materiala, beste bezero bat atenditzeko pronto.

Hitzordua eskatu behar da aldeztu aurretik. Txanda hartu nahi duenak deitu dezala hona: 688 62 06 48.

Bixen

Distantziak errespetatzea funtsezkoa da. Bixen ile-apaindegian “toki zabala dugu eta ondo moldatuko gara”. Bezeroak banan bana hartzen ari dira. “Langile bakoitzeko, bezero bat atenditzen dugu”.

Lantokia egokitu baino, lan

egiteko modua aldatu dute. “Lehen biak aurrera begira lan egiten genuen. Orain bat aurrera eta bestea atzera”.

Ordua eskatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 37 28 44.

Ines

Ines ile-apaindegian “maiatzaren 12an hasiko gara lanean”. Ordura arte lokala itxita egongo denez, hitzordua telefonoz eskatu behar da telefono zenbaki honetara deituz: 943 36 19 51. Hasi dira txandak hartzen. Hori bai, “oraingoz goizez bakarrik egingo dugu lan”.

“Lokal handia dugu”, adierazi digu Inesek, “eta binaka ere har ditzakegu bezeroak”.

Langile bakoitzak bezero bana atendituko du.

Intza

Ile-apaindegia segurtasun neurrietara egokitu asmoz, tokadore bat kendu dute. “Distantziak errespetatzeko egin dugu”. Horretaz gain, erabilera bakarrek toailak eta kapak eskuratu dituzte. Baita desinfektantea ere.

Langile bakoitzeko bezero bat hartuko dute eta hurrengo bezeroa atenditu aurretik, beharrezko denbora hartuko dute lantokia modu egokian garbitzeko.

Intzan ere maiatzaren 12an hasiko dira lanean baina aurretik eskatu behar da txanda: 943 36 36 41.

Bezeroak txanda hartzeko gogoz dira: “Jendea topera dabil, deika eta deika”

Ixabel Esnaola

“Deika eta deika” txanda hartzeko eta kalera irteteko gogotsu aurkitu ditu bezeroak Ixabel Esnaolak. Ireki aurretik ere deitzen ari zitzaizkion jada. Beharrezko baliabideak eskura ditu; maskarak, baita guanteak ere. Argizariarekin lan egiten duenez, espraidun guanteak behar izaten ditu. Momentuz ordea material aldetik aski duela adierazi digu. Lehen bezeroak etorri zaizkio eta lasai antzera sumatu ditu. Denda maiatzaren 11n irekiko du. Ordura arte aurrez hitzordua eskatuta eskainiko du zerbitzua. Ordutegi aldetik malgutasunez ari da lanean, “denbora gehiago behar dut dena garbitzeko”. Bezeroen antzera, langileak ere egokitze fase betean dira.

Hitzordua eskatzeko deitu 943 360 372 telefono zenbakira.

Lurdes Larrañaga

Lanerako beharrezko materiala eskuratu nahian zebilen astelehenean elkarrizketatu genuenean eta jada jaso dituen bezeroekin dituen hitzorduen agenda antolatzen. “Deitzen doazen heinean antolatzen segiko dut”. Asteazkenean irekitzekoa zuen estetika gunea, baina “dena dago airean eta batzuetan ez dakizu nola jokatut”. Esaterako, etxetik irteteko finkatu diren ordutegien mugak tarteko, hainbat pertsonekin lan egiteko behar adina denbora ez duela izango adierazi digu. “Ile-apaindegira joatea erosketak egitera joatea bezala izango ote den” galdetzen du, alegia finkatua duen ordutegiarren edozein unetan. Bezeroei maskara eta ordezkua eramatea aholkatzen die. Eta guanterik ez badute, gel hidroalkoholikoa bertan izango du. Aste honetan



Ile-apaindegiek eta estetika zentroek lanerako beharrezko materiala eskuratu dute azken asteotan. Dagoeneko bezeroak hartzeko moduan dira. Argazkia Bixen ile-apaindegikoena da.

AHOLKUA

Segurtasun neurriak beteko dituzte. Baina bezeroei ere maskarekin eta guanteekin joatea aholkatzen zaie

hitzordu bidez bakarrik zabalik, maiatzaren 11tik aurrera ohiko ordutegian irekita. Hitzordua 943 362 887 telefono zenbakira deituta eska daiteke.

Mariaje Elexpe

“Jendea topera dabil deika”, adierazi digu Mariaje Elexpek, “badakizu ilea zer garrantzitsua den”. Telefono deietan bizi dugun egoerari lotutako galderak. “Nola egongo garen, zenbat denbora... Galdera asko egiten dituzte”. Ulargarria deritzo, “hartueman oso zuzena dugu bezeroekin, ilea mozteko ezin dugu bi metrora egon”. Guante eta maskarekin joan

beharko duten bezero bakarra artatu ahalko dute ileapaindegiek. Baina lasai joateko deia egin du. “Lanerako prestatuak gaude”. Astelehenean bertan eskuratzekoa zuen beharrezko lanerako tresneria berria.

Maiatzaren 11n irekiko du ohiko ordutegian baina larunbatera arte aurrez 943 370 462 telefono zenbakian eskatutako hitzorduekin soilik lan egingo du.

Maiatzeko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Aipi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Kirola egiten hasteko hila-
labete aproposa izango
duzu hauxe, beraz, pres-
tatu txandala (horrek esan
nahi du txandala garbitze-
ko). Hileko aholkua: Ez,
dardotara jolastea ez da
kirola egitea.

**CANCER**

Etxean egindako hainbeste
bizkotxo eta ogirekin kilo
batzuk hartu dituzu eta
kezkaturata zaude. Hileko
aholkua: Lasai egon, behin
bakarrik bizi gara eta. Hala
ere, fruta gehiago jateak
kalterik ez dizu egingo.

**LIBRA**

Frigorifikoko atea mila bat al-
diz ireki duzu, pikatzeko zer-
baiten bila. Martxa honetan
konfinamendua bukatzerako
10 bat kilo gehiago izango zara.
Hileko aholkua: Jarri ezazu
hozkailearen atean mezu hau:
"Kontuz, arriskua!".

**CAPRICORNIUS**

Itxialdian gauza harriga-
rriak ikasteko aukera izan
duzu. Adibidez, azkazalak
oso azkar luzatzen zaizki-
zula. Hileko aholkua: Moztu
behingoz Rosaliaren atzapar
horiek!

**TAURUS**

Aurtengo zure urtebetetzea
ahaztezina izango da eta
festa bat antolatu beharko
zenuke baina segurtasun
tarteak utziz. Hileko aholkua:
Abantailak baditu honek; ez
dizute belarria gorri-gorri
utziko!

**LEO**

Hilabete hau pixka bat tris-
te egongo zara, Sagardo
Eguna bertan behera geratu
delako. Hileko aholkua: Maiatzaren
19an jantzi baxerritarrez,
ireki sagardo botila eta...
TXOOOOTX!

**SCORPIUS**

Inoiz ez zara oso maiteko-
rra izan baina orain besar-
kada eta muxuak emateko
izugarrizko gogoak duzu.
Hileko aholkua: Etxekoe-
kin entrenatu zaitezke,
edo bestela ispilaren au-
rrean jarri eta eman mu-
xuak zure buruari.

**AQUARIUS**

Azkenean kalera ateratzeko
aukera izango duzu eta ezin
duzu aukera galdu, baina
tamainan. Hileko aholkua:
Arratzain, Aginaga, Txokoal-
de, Sanexteban, Zubieta,
Kalexar eta Kaxkoa, denak
egun batean egitea, gehitxo
izango da...

**GEMINI**

Zure trebetasun soziala lan-
du beharrean zaude, jendea-
rekin egoten ia ahaztu egin
zaizu eta. Hileko gomendioa: Ez, ezin
duzu bizi guztia bideodeie-
kin jarraitu!

**VIRGO**

Adituek diote aspertzea gauza
ona dela, baina zuk ez duzu
berdina pentsatzen. Eskerrak
Usurbilgo Artixtek beti duten
emanaldi interesgarri bat. Hi-
leko aholkua: Zergatik ez zara
animatzen zu ere zerbitu egi-
ten? Malabarak edo...

**SAGITARIUS**

Aldaketa bat behar duzu zure
bizitzan. Orain arte egin ez
duzun zerbitu egin beharko
zenuke, sortzaileagoa. Hile-
ko aholkua: Pentsatu duzu
balkoiko DJa izatea? Etorki-
zun handiko lanbidea izango
da, zalantzarik gabe.

**PISCIS**

Badira bi hilabete zure bi-
hotzeko azukre koxkorra-
rekin ez zaudela, eta gaiz-
ki pasatzen ari zara. Hileko
aholkua: Erosketak egiteko
ordu berdinean geratu eta
zuen maitasuna erakutsi
ezazue yogurten apalean!

Hondakinen kudeaketa hobetzeko Hobeki elkartera batu da Usurbil

Berastegi, Berriatua, Donemiliaga, Hernani, Larrabetzu, Leintz-Gatzaga, Oiartzun, Segura, Zaldibia... eta orain Usurbil. Udalbatzak joan den ostegunean eginiko osoko bilkura telematikoa, Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki erakundeen elkartera atxikitzea erabaki zuen gehiengo osoz. Lur Etxeberria zinegotziak azaldu zuen moduan, “bere helburua praktika onak bultzatzea, herri arteko informazioa trukatzea eta ideia berriak sortzea” da.

Hainbat konpromiso hartzearekin bat egiten du Udalak; elkarteak berak sustatzen dituen printzipioen arabera garatzea hondakinen kudeaketa, eremu honetako plangintza bat diseinatu eta udalerri bakoitzaren unean uneko informazioa partekatzea. Horrekin batera, “tratamendu finalistara doan zatia ahalik eta txikiena izateko konpromisoa hartzen da. Zabortegi konbentzionalen edo errauste-planten ordeztasunak tratamendu jasangarriak hobetsiko dira”.

Oposizioa, aurka

2018ko ekainean aurkeztu zuten Hobeki Elkarteak. Aurretik, urte hartako maiatzeko osoko bilkuran elkarte honen printzipioekin bat egitea erabaki zuen udalbatzak. Orain urrats berri bat eman du; elkarteko kide izatera igaro da Usurbilgo udalerria. Pauso hau bi urte beranduago eman izana, Etxeberriak argitu zuen iragan aste-ko udalbatzarrean. “Usurbilgo Udalak orain arte ezin izan du Hobeki elkarteko kidea izan, plan finantzarioa tarteko. Hau bukatuta, orain kide izan gaitzke”. Aurrerantzean, urtero



Aurrerantzean, urtero 4.000 euroko ekarpena egingo dio Usurbilgo Udalak Hobeki elkarteari.

HOBEBE ELKARTEA

Lur Etxeberria zinegotziak azaldu zuen moduan, “bere helburua praktika onak bultzatzea, herri arteko informazioa trukatzea eta ideia berriak sortzea”

4.000 euroko ekarpena egingo dio Udalak Hobeki elkarteari. Partaide diren udalerri guztiek, biztanleria kopuruaren arabera ekarpen ekonomikoa egingo dute.

EAJ-PNV: “Batzar Nagusietan onartutako PIGRUG planaren aldekoak gara”

Proposamenaren aurka bozkatu zuten oposizioko udal taldeek. EAJ-tik adierazi zuten, “gu Batzar Nagusietan onartutako PIGRUG planaren aldekoak gara eta ez dugu honen beharra ikusten”.

PSE-EE: “Ez dut partekatzen errauste plantari buruz hitzarmenak esandakoa”

PSE-ko udal ordezkari Patxi Suarezrek Hobeki elkarteak

hondakinen kudeaketa hobetzeko sustatzen dituen dekalogoko zenbait neurrirekiko adostasuna agertu zuen arren, “ez dut partekatzen errauste plantari buruz hitzarmenak esandakoa”.

Honenbestez, Hobeki elkartearekin bat egiteko proposamenak udal gobernu taldearen, EHBilduko udal ordezkarien babesa izan zuen soilik. Hondakinen kudeaketa hobetzea xede duen dekalogoko printzipioek, besteak beste; osasuna eta ingurumenaren zaintza lehenesten dute hondakinen kudeaketan; “herritarrok eta herri-erakundeok elkarren eskutik joan behar dugu”; herritarrak ahalduntzea eskatzen du; ikuspegi zirkularraren lanketa; hondakinen murrizketa neurriak zorroztea; bilketa eraginkorrak sustatzea; murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea, hurrenkera horretan finkatzea lehenetsunak; erraustegiak eta zabortegi konbentzionalak kutsakorak ez onartzea; azpiegitura lokalak lehenestea; eta eremu honetako aurrerakuntza teknologikoei garrantzia ematea.

Ikastolen jaialdiak udazkenean ospatuko dira

Maiatza eta ekaina artean ospatzekoak ziren ikastolen aldeko jaialdiak uda ostera atzeratzea erabaki du Ikastolen Elkarteak. Tartean igande honetan bertan, Senperen egitekoak ziren Herri Urrats. Seaskakoen esanetan, irailan egin asmo dute Herri Urrats. Eta hortik aurrera gainontzeko guztiak.

Andatzari lotutako lanketak ikusgai

Izatez, joan den maiatzeko lehen igandean izan behar zuen, baina bizi dugun egoera tarteko, Andatza Egunik ez da ospatu aurten. Ezohiko egoera honetan, Andatzari lotuta iaz eginiko bi lan sarreratu ditu Usurbilgo Udalak. Batetik, Aranzadi zientzia elkartearen “Andatza mendigunearen inguruko okupazioari buruzko azterketa eta interpretazio arkeologikoak”. Bestetik, Asier Agirresarobek, Joseba Alonsok eta Javi Castrok landutako “Usurbilgo mugarrak eta Andatzako errota-harrobiak”.

Iazko bi lanon laburpenak Usurbilgo Udaren usurbil.eus atarira igo dituzte, “Andatzako ondarea hobeto ezaugu eta gozatzeko”.



Kirola egiteko baimenarekin bat egin zuen Andatza Egunak. Askok oinez edo bizikletaz igotzeko aukera baliatu zuten. Jose Miguel Villafañilaren Facebook orrialdean topatu dugu ondoko irudia. Aurten, igo diren sinadurak dirudite.

Erraustegietatik gertuko biztanlerian, bularreko minbizi kasuen gorakadaz ohartarazi du GuraSOsek

Erraustegiek osasunean duten eragin kezgarriaz ohartarazten duen beste ikerlan baten berri eman du GuraSOsek. Amerikako Estatu Batuetan landu dutena ospitale eta unibertsitate ospetsu hainbatek; tartean Harvard, Yale eta Kaliforniako unibertsitateek eta ospitale garrantzizkoenak, baita AEBetako osasun institutuak ere, esaterako, Minbizia Ikerketarako Marylاندeko Institutu Nazionalak.

1989-2013 urte artean, 25 urtez honenbestez, osasun zerbitzuetako 112.397 emakume erizain baino gehiagoren osasun egoera aztertu zuten.

Emaiza kezagarria heldu ziren; zenbait kasutan, hiri hondakinen erraustegietatik 5 kilometro bizi diren emakumeen artean bularreko minbizien kasu kopurua %52raino igo daitekeela ohartarazten du, batzuetan bestekoa %25ekoa dela, %15etik %28rainokoa 10 kilometrotara bizi direnen artean. “Zifra horiek berez aztoragarriak badira udal hondakinen erraustegien kasuan, zer ez ote da izango horri Zaldibarko industria hondakinak erantsiz



Hiri hondakinen erraustegietatik 5 kilometro bizi diren emakumeen artean bularreko minbizien kasu kopurua %52raino igo daitekeela ohartarazten du Amerikako Estatu Batuetan egin den ikerlan batek.

GURASOS

“Guztira 1.118.596 pertsona dira EAEko bi erraustegien eragin zuzeneko eremuan bizi direnak, hots, biztanleen %51”

gero, eta hori gaur egun Zubietan gertatzen ariko da”, ohartarazi du GuraSOsek.

Ia 600.000 emakume, EAEko bi erraustegien eragin eremuan Ehuneko horiek EAE-n ditugun Zabalgarbiko eta Zubie-

tako erraustegien hurbileko eremuetara ekarri nahi izan ditu GuraSOsek. Eta ondorio kezgarria heldu da. “Guztira 1.118.596 pertsona dira, EAEko bi erraustegien eragin zuzeneko eremuan bizi direnak, hots, biztanleen %51”.

Espainiako Estatistika Institutuaren 2019ko datuen arabera, Zubietako erraustegiaren “10 kilometroko erradioak hiriburu guztia eta Gipuzkoaren zati handia hartzen du, mendealdetik Zarautzeraino, eta hegoaldeetik Anoeta herriraino, eta zonalde horretan 308.016 pertsona bizi dira, eta horietatik emakumeak 159.254. Herri

hauek hartzen ditu: Zarautz, Orio, Anoeta, Alkiza, Larraul, Villabona, Asteasu, Aia, Irura, Aduna eta Zizurkil, eta Donostia, Hernani, Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil; horiek denak 5 kilometroko erradioan”.

Bizkaiko Zabalgarbiko erraustegiaren inguruneari dagokionez, “Bilbo eta Alonsotegi 5 kilometroko erradioan daude eta 10 kilometrokoan: Arrigorriaga, Galdakao, Erandio, Leioa, Getxo, Sestao, Portugalete, Barakaldo, Basauri, Derio, Zamudio... Zonalde horretan 810.580 pertsona bizi dira eta emakumeak 410.030 dira”.

“Erantzunen fidagarritasun maila oso altua da”

Ikerlan honen harira, Eduard Rodríguez-Ferré medikua, epidemiologoa, ikertzailea eta gaiotan aditua elkarrizketatu du GuraSOsek. “Dioxinek minbizian izan dezaketen eraginaz, orain arteko azterlan sakonena” dela dio AEB-k egirikoa. Garrantzitsutzat jotzen du ikerketaren iraupena 25 urtekoa izatea, eta tarte horretan urtero 112.000 emakume ikeritu izana. “Erantzunen fidagarritasun maila oso altua da”.

Bere esanetan, “beharbada, orain arte dioxinek bularreko minbizian duten eraginari buruz egin den azterketa zabalena izan da”.

25 urteotan aztertuak izan diren emakumeek patologiarik izan badute aztertua izan da. Nahasmena eragin zezaketen beste hainbat faktore ere aztertu dituzte baita; industria, trafikoa... Lan konplexua egin dutela dio GuraSOsen elkarrizketatuak.

Baina ondorioztatu duenez, “argi geratzen da estatistikoki, modu nabarmenean bularreko minbizi gehiago gertatzen direla udal hondakinen erraustegietatik gertu bizi diren emakumeetan, gainerako emakumeetan gertatzen direnekin alderaturik”.

Rodríguez-Farré doktorearen esanetan, erraustegiek bularreko minbizien areagotzean duten eragina agerian uzten du ikerlan honek eta era berean,

ondorio beretsuetara heldu diren beste minbizi mota batzuei buruzko beste hainbat azterketa indartzen ditu; espainiar estatuko Carlos III Institutuak Errusian, Britainia Handian edota beste herrialde batzuetan egin izan direnei buruz landutakoa esaterako.

AEBetako ikerlana helbide honetan duzue osorik: sciedirect.com/science/article/abs/pii/S0013935120304096

“Ikasleak lan batekiko konpromisoaren garrantzia baloratzen ikasten du”

Asier Hazas Berasategui (21 urte, Lasarte-Oria) Energiaren Ingeniaritza graduako 4.maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Asier Hazas. Lehen Hezkuntza eta DBH Landaberrin egin nituen eta Batxilergoa IES Lasarte-Usurbil ikastetxean. Hainbat hobby dauzkat, besteak beste futbola, mendia eta snowboard-a.

Zergatik aukeratu zenuen Energiaren Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Kuriositateak teknologiaren munduan murgiltzera eramanez ninduen. Unibertsitatearen garaia iritsi zenean, argi nuen teknologiarekin erlazioa zuen zerbait egin nahi nuela. Energiaren ingeniaritzaren graduak gaur egungo energiaren erronkak aztertzen ditu, ekoizpen garbia, adibidez, eta horiei aurre egiteko prestatzen ditu.



Energiaren Ingeniaritza ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean. Suediako Skovde hirian ari da Erasmus egonaldia egiten.

ASIER HAZAS

“Aipatzekoa da Mondragon Unibertsitatearen metodologia. Seihileko bakoitzean, ikasitakoa aplikatu behar da egungo arazo bati aurre egiten dion proiektu batean”

Bestalde, Mondragon Unibertsitatearen metodologia aipatzekoa da. Izan ere, seihileko bakoitzean ikasitakoa aplikatu

behar da egungo arazo bati aurre egiten dion proiektu batean. Horrek teoria eta praktika garatzea ahalbidetzen dizu. Unibertsitateak antolatzen dituen ate irekietara joan ostean, gradu hau aukeratzea erabaki nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso lagungarria izan zait. Izan ere, arlo honetako arazo askotaz ohartu naiz, eta

oinarri matematiko eta informatiko on baten garrantziaz. Soluzioak modu efiziente eta sistematiko batean aurkitzeko beharrezkoak dira arlo hauek menperatuak izatea.

Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Arazoren bat izanez gero edota gai baten inguruan sakondu nahi ezkeror irakasleak beti daude prest laguntzeko. Gertutasun horrek asko laguntzen du ikaslearen garapena sustatzen. PBL-a, lehen esan bezala, oso lagungarria da alde praktikoa sustatzeko eta Mondragon Unibertsitatearen markaren bereizgarria bilakatu da nire ustez. Bestalde, unibertsitateak eskaintzen duen Dual ereduak ikaslea enpresa munduan murgiltzea ahalbidetzen du. Honen bidez, ikasleak lan batekiko konpromisoaren garrantzia baloratzen ikasten du, eta hau lan mundurako oso balagarria dela iruditzen zait. Beste unibertsitate batzuetako ikasleek aurrean abantaila bezala ikusten dut.

“Master bat egitea da nire hurrengo pausua”

Nolakoa izaten ari da eta nola baloratzen duzu Erasmus bidezko nazioarteko esperientzia?

Asier Hazas. Skovde izeneko Suediako hiri txiki batean tokatu zait Erasmus egonaldia. Oso lagungarria egiten ari zait, zeren orain arte egin gabeko egunorokotasu-

neko jarduerak egiten ikastea tokatu zait, eta gurasoek guregatik egiten duten lan guztia baloratzen ikasi dut. Suediako kultura oso desberdina da, oso ordenatuak, puntualak eta gaiztakeriarik gabeko jendea da. Hemen jendea nahiz eta hotza iruditu, beti agertzen dira prest edozertan

laguntzeko.

Oso lotsatiak dira baina konfidantza hartzen dutenean saltseroak.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Unibertsitatearen alderdirik hoberena PBL metodologia da, nire ustez.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Ikasten jarraituko dut. Master bat egitea da nire hurrengo pausua, seguruenik Industrialetako Masterra. Masterra, aski seguru, Mondragon Unibertsitatean egingo dut, orain arte esperientzia ona izan baitut.

Aitziber Aranberri: “Gure eskaerak beharrezkoak ikusten genituen lehen, ezinbestekoak dira orain”

Bizitza, pertsonak erdigunean jartzeak duen garrantziaren adibide argia, gaurkotasun handikoa, lerrootan. Kasu honetan, zainketa lanetan ari direnen eta laguntza honen beharrean direnena. Adinekoen egoitzetan bizi den egoera lehendik zaila bazen, covid19-ak gehiago okertu du egoera, egoitza hauetako bateko langile eta ELA sindikatuko ordezkari Aitziber Aranberri herritarrek NOAUA!ri adierazi dionez.

Itxialdia hasi arte, denbora luzea zeramaten greban eta baldintza duinak exijitzen bai sektoreko langileentzat eta egoitzetako egoiliarrentzat. Urte luzez plazan aldarrikaturikoa gupidagabeki are modu bortitzagoan ikusarazi du covid19-ak. Bizitza duinen aldarria inoiz baino biziago dagoela, eta lehendik hasia zuten borrokak inoiz baino zentzu eta indar handiagoa duela adierazi digu Aranberriker lerrootan.

NOAUA! Greba luzatua zenuten martxoaren 8ra arte. Zertan da zuen borroka?

Aitziber Aranberri: Beste hila-betez luzatzea aurreikusten genuen, baina martxoaren 13an eten egin genuen. Zer zetorren aurreikusita lanera itzultzea erabaki genuen.



Adinekoen egoitzetan bizi den egoera lehendik zaila bazen, Covid19-ak gehiago okertu du egoera. Aitziber Aranberri egoitza bateko langilea da eta euren borrokak inoiz baino zentzu eta indar handiagoa duela adierazi digu.

AITZIBER ARANBERRI

“Ez gara iristen. Askoz langile gehiago behar dira. Baina erakundeentzat azkenak garela ikusten da”

Aldi baterako etenaldia da honenbestez.

Dudarik gabe. Gauzak aldatzen ez badira, eta ez dugu pentsatzen hala gertatuko denik, jarraituko dugu noski eta lehen baino indar handiagoz gainera.

Covid-19ak lehendik zenuten egoera okertu du ezta?

Okerrera baino, zegoen arazoa gehiago azaleratu eta handitu da. Lehen genituen arazoak

egungo berak dira, baina orain gehiago. Lehen genuen ikuspuntu bera dugu. Adinekoen egoitzak azkeneko lehentasun puntuak dira denentzat, bai sozialki, enpresa eta erakundeentzat. Lehen argi genuen baina, lehen bazirudien guk bakarrik genuela argi. Barruan geundenak. Orain komunikabideetan askotan agertzen ari da gaia. Zerbitzu publiko bat izanik, jasotzen zuten atentzioa ez zela egokia aldarrikatzen genuen, ez zela behar zuten adinakoa. Lehen ere esaten genuen langile gehiago behar dira, ez gara iristen. Orain koronabirusarekin arazo hau dena biderkatu da. Ez gara iristen, askoz langile gehiago behar dira, erakundeentzat azke-

nak garela ikusten da.

Arazo larrienak eremu honetan ematen ari direnean.

Bai noski. Pertsona zaurgarrienak dira, greban ginela oso argi genuen. Elkarrekin egoteko zonalde partekatu asko dituzte. Koronabirusaren ezaugarriak ikusita, guk oso argi izan genuen, gu ere oso garrantzitsuak ginela koronabirusa egoitzetan sartzeko. Eta oso argi genuen babes neurri handiak behar zirela hasieratik eta ez da halakorik izan. Gure pertzepzioa zera zen, protokoloak aldatzen zihoazela zeuden baliabideen arabera. Babes neurriak egotzaren arabera zirela. Egoiliarrek eta langileak ikusezina garen pertzepzioa dugu.

“Birusak bete-betean jo du adinekoen egoitzetan”

NOAUA! Borroka luze baten erdian orain egoera zail hau kudeatzea egokitu zaizue. Zer moduz zaudete langileok?

Aitziber Aranberri. Gu geroz eta gehiago berresten gara aurretik egiten ari ginen borrokan. Urte eta erdiz egon gara greban. Gure eskaerak lehen be-

harrezkoak ikusten genituen, larritasun handiagokoak eta ezinbestekoak dira orain. Urte eta erdiz egon gara greban, duela urte erdi lortu izan bagenu seguruen hobeto egongo ginen. Horregatik, gure aldarrikapenak ez dira batere aldatu, are gehiago, indartu egin dira.

Nola gauden? Birusak bete-betean jo duen egoitzetako langileekin hartueman dugu eta oso gogorra izaten ari da. Birusa nola hain azkar hedatu den ikustea, egoiliarrek nola doazen, bakarrik, langile gutxi, lana biderkatu eta gehiago egin da... Ez dut egoera hori barru-

tik bizi izan, baina azkenean ogibide hau berez gogorra da, bai fisikoki eta psikologikoki eta halako egoera batean lan egitea, are gogorragoa. Halako kasurik bizi ez dugunak, beldurrez gaude. Badakigu birusa sartzen bada dena suntsitu egingo duela.

Aitziber Aranberri: “Babes eta segurtasun neurriak eskatzen ditugu, eta langile gehiago”

NOAUA! Zer moduz ikusten dituzue adinekoak?

Aitziber Aranberri: Bisitarik gabe daude. Bideo deien bidez, inguruko gutxieneko hartue-man hotz batekin. Ez dira eguneror, ez une oro izaten. Batzuk gainera ez dute ulertzen egoera. Bakartuak, isolatuak daude batzuk geletan. Kontaktu falta ikaragarria dute. Gu askotan ez gara iristen beraien beharretara. Behar hori askotan da agian eskua eman eta haiekin egotea. Eta ez gara iristen. Lehen, zonalde komun askotan egoten ziren langile gutxirekin. Orain behar handiagoak daude, sakabanatuagoak edo isolatuagoak daude, eta beraiei eskaintzen diegun denbora askoz murriztagoa da. Ikaragarritzko behar afektiboak dituzte. Afektibotasuna etenda dute, senideen bisitarik ez dute eta gu ere ez gara iristen.

Urgentziazko egoera honetan agerian geratu diren zein eskaera lirateke une honetan lehentasunezkoak?

Batetik arriskua gutxitzeko langile guztiei probak egitea. Nahiz publikoki esaten duten



“Nire lantokian ohi baino langile gehixeago daude”, adierazi digu Aitziber Aranberrik. “Beste zentro askotan baja asko daude, erizain falta ikaragarria dago”.

ESKAERAK

“Batetik, langile guztiei probak egitea. Bestetik, segurtasuna bermatzea. Egoiliarrena eta gurea”

denei egin digutela, horretan ari dira. Bestetik segurtasuna bermatzea bai egoiliarrentzat eta guretzat. Eta horretarako,

babeserako materiala. Egoiliarrekin bi metrora ezin dugu lan egin, lan egiteko haien ondoan egon behar dugu. Beraien beharrianak asetzeko erabat edo gehiago asetzeko, babes eta segurtasun neurriak eskatzen ditugu. Eta langile gehiago. Ni adibidez eguneko zentroko langilea naiz. Orain erresidentzian jarri naute lanean, eguneko zentroa itxita baitago.

Nire lantokian ohi baino langile pixkat gehixeago daude. Beste zentro askotan baja asko daude, erizain falta ikaragarria dago.

Eta beldurra.

Bai, bakoitzak gero bere etxea dauka, bere familia. Bere arriskuak. Denok ditugu gurusoak, seme-alabak... Beldurra bai.

“Lan prekarizatuak dira orain ezinbestekoak direnak”

NOAUA! Oinarritzko zerbitzuak zein diren eta zer prekarizatuak dauden agerian geratu da asteotan.

Aitziber Aranberri: Hau dena bukatzen denean, ez dakit honek guztiak emozionalki ze buelta ekarriko duen. Egoiliarrekin ere ez gara denera iristen. Lehen esaten bagenuen ez daudela behar bezala artatuak ez ginelako iristen, orain gutxiago. Horrek bai bere osasunean bai bere bizi-kalitatean eragin zuzena du. Ondorio nabarmenak izango ditu.

Zuen lan eremuan bizitzen ari zareten horretatik zer da ikasi beharko genukeena?

Hausnarketa aspaldi egin genuen. Bizitza erdigunean jartzea zer den ikusten ari gara, lan prekarizatuak dira orain ezinbestekoak direnak.

Lehen ere oso argi genuen eskatzen ari garena ez dela gutizia bat, arrazoi osoa genuela eskatzen ari ginena eskatzeko. Benetan beharrezkoa dela, baina ez guretzat bakarrik, eta ez sektore honetako langileontzat bakarrik, gizarte osoarentzat baizik. Horregatik berresten

gara geure aldarrikapenetan, geroz eta argiago ikusten ditugu gauzak. Eta espero dugu jendeak ere ikustea.

Eta borroka honekin bat egitea, denona baita.

Oraindik ikusezinak garen pertzepzioa dugu. Eguneror ematen dituzte datuak. Adibidez, ez digute esaten zenbat langile dauden diagnostikatuak, ospitalizatuak, ez dute esaten. Ikusezinak gara. Tratu hori jasotzen dugu. Horregatik indarra izango dugu, baina gizartearen aldetik babesa ere

beharko dugu.

Kaleko bizimodura itzultzen garenean, hau izango da plaza publikoan izango den lehentasunezko gaietako bat.

Denon ardura izango da. Eta ez adinekoen egoitzena bakarrik, etxer etxeko laguntzaileena... Oraitxe bertan ezinbestekoak diren lan horienak, denenak. Ez da kasualitatea, juxtu une honetan ezinbestekoak diren lanak prekarizatuak izatea; adinekoen egoitzetako lana, zaintza lanak, saltokiak, banatzaileak...

Maskarak, “Kalean seguru” ibiltzeko

Ordu jakinetan etxetik irtetea baimendu zaien honetan, 65 urtetik gorako herritar guztiei, 1.258 usurbildarrei deitzekoa zen aste hasieran Usurbilgo Udala. Zereginotan jarri zituen 30 udal langile, irteerok egiteko informazio argigarria eskaintzekoak ziren, paseatu edo ariketa fisikoa egiteak osasunerako dituen onurak nabarmentzearekin batera.

Kolektibo honetako kide bakoitzari bina maskara helaraziko dizkio Udalak gutunazal batean etxeko postontzietara. “Kalea seguru” aldarripean bestalde, adin tarte guztietako



65 urteko herritar guztiei bina maskara edo musuko helaraziko dizkie Udalak. Argazkia: Usurbilgo Udala.

herritarrei irteereetarako argibideak eskaintzen dizkien kartela plazaratu eta eseki du Udalak etxe atarietan.

0 fasean, lehenengora bidean

“Normaltasun berrirantz” deseskalatze plana diseinatu du Espainiako Gobernuak. Ekaina amaierara arte luzatu daitekeen trantsizio aldia izango da, 4 faseetan banatua. Une honetan dakizuen 0 edo prestakuntza fasean izango gara igandera arte, maiatzaren 10era arte gutxienez.

Gero probintziak, herrialde bakoitzak duen egoeraren arabera, baldintza zehatz batzuk betetzen dituen 1. fasera igaro ahalko da hilaren 11n. Eta hala gertatuko da beste bi faseekin ere; egoerak baimentzen badu, 15 egunero fase aldaketa izango da. Lehen faseei begirako argibideak dituzue segidan. Adi azken ordutako aldaketak egon daitezke:

0 fasea

Maiatzaren 10era arte

- Prestakuntza fasea.
- Haur, heldu eta adinekoak, ordutegi zehatzetan paseatu nahiz ariketa fisikoa egitera atera daitezke.
- Aurrez hitzordua eskatuta, hainbat zerbitzu jasotzeko aukera saltokietan; ile-apaindegi edo



Janaria etxera eramateko prestatzen hasi dira Artzabal jatetxean.

jatetxeetan. Langile bakoitzak bezero bakarra artatu ahalko du.

■ Kirolari profesionalen banakako entrenamenduen hasiera.

■ Maskarak ezinbestekoak garraio zerbitzuetan.

■ Artxiboen irekiera, nahiz zerbitzua telematikoki eskaintzea lehenetsi beharko den.

■ Familiako baratzak, autokontsumokoak edo udalbaratzak lantzeko aukera udalerrian bertan edo inguruko herrietan.

1. fasea

Aurreikuspena, maiatzaren 11tik 25era

■ 10 pertsona arteko bilkurak egiteko aukera etxean nahiz kalean, gutxieneko tarte eta

prebentzio neurriak hartuta.

■ Ibilgailuetan: etxe bereko pertsonak ibilgailua bete dezakete. Bizileku berekoak ez badira, gidaria aurrean, bidaiari bat atzeko eskuin aldeko eserlekuan.

■ Beila zerbitzuetan: gune itxietan gehienez 10 lagun, aire librean 15.

■ Gurtza lekuetan gunearen %30a betetzea baimendua.

■ 400 metro karratu arteko saltokien irekiera (%30ean), alde aurreko hitzordua eskatu beharrik gabe. Egunero bitan gutxienez, instalakuntzen garbiketa.

■ Terrazen irekiera, %50eko okupazioa. Mahai artean bi metroko gutxieneko distantzia.

■ Hotelen irekiera murrizketekin.

■ Lokalen irekieran, lehentasunezko ordutegia 65 urtetik gorakoentzat.

■ Kultur ekitaldien abiatzea: 30 lagun baino gutxiagorentzat kultur gune itxietan, 200 lagun baino gutxiagorentzat aire librean. Museo eta liburutegien irekiera mugatua.

■ Errendimentu altuko kirol guneen irekiera.

Herriko “deseskalatze plana” prestatzen

Espainiako Gobernuak “normaltasun berrirako” bidea jorratzeko onartua duen deseskalatze plana herrira nola egokitu aztertzen hasia da Usurbilgo Udala, apirilaren 30ean egin zuten udalbatzar telematikoa udal gobernu taldetik adierazi zuten. Asteotan deitzekoa duten udal barruko antolaketak batzordean proposamen bat aurkeztekoak dira.

Maskarak ezinbestekoak garraio zerbitzuetan

Aste hasieratik tren nahiz autobus zerbitzuak baliatzeko ezinbestekoak dira maskarak erabiltzea. Eserlekuen %50a erabilgarria izango da zerbitzuotan. Zutik joan behar izanez gero, metro karratu bakoitza bi bidaiarik partekatu ahalko dute. Furgonetan nahiz norbere ibilgailuetan, eserlekuen lerro berean bi bidaiari joan ahalko dira, beti ere maskarekin. Bestela, lerro bakoitzean bidaiari bana. Taxieta berdin, baina aurreko eserlekuetan gidaria bakarrik joan ahalko da.

Maiatzaren 2an kirolariz bete ziren bazterrak

Zazpi asteko etxealdia eta gero, lagun ugari kirola egiteko gosez ziren. Maiatzaren 2an atera ahal izan ziren lehen aldiz. Bizikletan, patinetan, oinez edota korrika, gozatu ederra hartu zuten askok. Eguraldia lagun izan zuten gainera.



Pasa den larunbatean, Santuenean.



Idoia Torregarai

Koronabirusak erakutsi dizkigunak

COVID-19k eragindako pandemia ikusita, badirudi ezer onik ezin dela egoera honetatik atera. Baina itxialdiak ere hainbat kontu positibo ekarri dizkigula uste dut. Hauek, adibidez:

1. Bizkotxo eta ogi pila bat egiteko (eta jateko) aukera izaten ari gara.


Lehenengo egunetako komuneko paperaren eromena pasa ondoren, denda eta supermerkatuetako irin eta legamiaren apalak husten ari dira. Etxeetako labeak ia etengabe ari dira lanean eta inoiz baino hobeto usaintzen dute sukaldeek. Txokolatezko bizkotxoak, ama-oreaz egindako ogia eta gurinezko gailetak gure eguneroko dietaren zati bihurtu dira. Kilo pare bat gehiagorekin bukatuko dugu, baina zenbat gozatzen ari garen!

2. Ez dugu arropagatik kezkatu behar.

Aste guztia egon gaitezke pijametan edo txandalarekin. Gainetik niki bat jarri eta lixto, lanerako zein sukaldean aritzeko prest gaude. Akabo eguneroko outfita aukeratzeko buruhausteak. Itxialdiak erakutsi digu erosotasunak asko balio duela. Eta ahalegin bat egin behar dugunean laneko edo kuadrilarekin egin behar ditugun bideo-deietan, erdi lanekin nahikoa dugu: pijamen galtzekin lasai asko egon gaitezke, inork ez baitizkigu hankak ikusten. Zoragarria!

3. Inoiz baino kontzertu gehiago entzuten ari gara.

Eta gure sofatik mugitu gabe, gainera! Une batzuetan es-



“Txokolatezko bizkotxoak, ama-oreaz egindako ogia eta gurinezko gailetak gure eguneroko dietaren zati bihurtu dira. Kilo pare bat gehiagorekin bukatuko dugu, baina zenbat gozatzen ari garen!”. Argazkia: alea.eus

IDOIA TORREGARAI

“Zoom, Meet, Jitsi... gure eguneroko hiztegian integratu ditugu eta aspaldiko lagun eta familiakoak gerturatu dizkigute”

tresatu eta guzti egiten naiz agendan apuntatuta ditudan zita guztiekin. Eta zer esan Usurbilgo Artixtetaz? Ez al da pozgarria izaten ari herriko talentu guztia ezagutzea? Bejondeizuela! Eta ez ahaztu hau guztia bukatzerakoan kontzertuetako sarrerak erostez.

4. Bizikleta estatikoari hautsa kendu diogu.

Kirola egiten ez genuenok ere gure gorputza mugimenduan jarri dugu egun hauetan zehar. Normalean pertxero bezala erabiltzen nuen bizikleta estatikoaren gainean jarri naiz eta izerdia ateratzen ari naiz:

ez sinistekoa! Egia aitortuko dizuet: inoiz ez dut hainbeste kirol egin. Martxa honetan gurpilik gabe ere Andatzako puntara iritsiko naiz!

5. Bideo-deiak nola egiten diren ikasi dugu.

Aitortu dezagun: itxialdiko lehendabiziko egunetan nahikoa komeria izan genituen ditxosozko bideo-deiak egiteko. Teknologia bagenuen baina ez genekien nola erabili.

Orain, berriz, Zoom, Meet, Jitsi... gure eguneroko hiztegian integratu ditugu eta aspaldiko lagun eta familiakoak gerturatu dizkigute.

6. Etxea txukundu dugu.

Gure etxeko garbitasunak asko irabazi du azkeneko bi hilabete hauetan. Bizkotxo eta bizkotxo artean armairuak ordenatu, trasteak kendu eta leihoak garbitzeko denbora eduki dugu. Nire lau paretak Mister Propperrenak baino distiratsuagoak

daude!

7. Siestak egiteko aukera handiagoa.

Etxetik lan egiteak bere gauzak ditu, baina lana nahi duzun bezala moldatzeko aukera ematen dizu. Nire kasuan, bazkaldu ondorengo lokuluxka sakratua bihurtu da itxialdian nagoenetik. Nire bizitza kalitatea handitu egin da eta nire begizuloak txikitu!

8. Naturari arnas pixka bat eman diogu.

Konfinamenduan buelta eman zaio guztiari: txoriak libre eta gu kaiolan. Datu guztien arabera, itsaso zein ibaietako uren kalitatea hobetu egin da, airea garbitu, eta animalia asko gure kaleetan zehar lasai asko ibiltzen hasi dira. Zer pentsatua emango ote digu honek...

Zerrenda osatzen animatzen zara?

Udalbatza telematikoki bildu da lehen aldiz

Covid19-aren beste ondorioetako bat albiste honi atxikitako irudia duzue. Udal ordezkariak ezin bildu pleno aretoan eta apirilari zegokion udalbatzarra telematikoki egin zuten apirilaren 30ean. Gogoan izan, martxoko plenoa bertan behera geratu zen. Apirilekoa orde, modu honetan egitea erabaki zuten. “Guretzat ezinbestekoa zen egoera berezi honetan, udal tramitazioarekin, udal funtzionamenduari jarraitzea. Horregatik iruditu zitzaigun garrantzitsua osoko bilkura egitea, tramitazioan ahalik eta etenaldi txikiena izan zedin”, zioen apirilaren 30eko udalbatzarren hasieran alkate Agurtzane Solaberrietak.



“Espero dezagun hurrengo hilabeteko plenoa beste baldintza batzuetan egiteko aukera izatea, hori seinale ona litzatekeelako”, azaldu zuen alkateak pleno amaieran.

Egoera berrian, tresna berriak

Osoko bilkura egitekotan, “dauden osasun eta babes neurriei jarraiki” egin nahi zuten. Hortik, bide telematikoa al-deko hautua egin izana. “Egoera berriak tresna eta lan egiteko modu berriak eskatzen ditu eta horretara ere egokitzen ari gara Usurbilgo Udalean”, zioen alkateak.

PLENOA, SAREAN

“Plenoaren izaera publikoa bermatzeko, streaming bidez eskaintzea erabaki zuten, Udalaren Youtube kanalean”

Udalbatzarrak beti publikoak izan ohi dira, edonor

joan daiteke pleno aretoa osoko bilkura bertatik bertara ikusi eta entzutea.

Engungo egoera orde zein den aintzakotzat hartuta, izaera publiko hori bermatzeko, hitzordua streaming bidez eskaintzea erabaki zuten, Usurbilgo Udalak Youtube duen “Usurbil Udala”

kanalean. Udalbatzar osoaren ikus-entzunezkoa bertan duzue ikusgai. “Espero dezagun hurrengo hilabeteko plenoa beste baldintza batzuetan egiteko aukera izatea, hori seinale ona litzatekeelako”, adierazi zuen alkateak apirilaren 30eko udalbatzarren amaieran.

“Birus honi aurre egiteko egoera ekonomiko onean da Usurbilgo Udala”

Tarteka egin ohi duen moduan, Usurbilgo Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioaren berri eman zen, covid-19aren eraginez, lehen aldiz telematikoki egin behar izan zuten apirilaren 30eko udalbatzarrean. Zehazkiago esanda, 2019ko udal aurrekontuaren likidazio onarpenaren berri plazaratu zuten. “Usurbilgo Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa ona zen 2019ko abenduaren 31n”, adierazi zien udal ordezkariak, Xabier Olano udal kontuhartzaileak.

Covid19-aren eraginez bizi dugun egoerari aurre egiteko, “egoera onean da Udala”, 2018an eta 2019an gertatu den moduan. Azken bi urteotan indarrean izan den udal ekonomia eta finantza plana “oso ondo bete da”, udal kontuhartzailearen esanetan.

Aurrera begira, “aurreko urteko exekuzioa, uneko aurrekontua eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ikusirik, ezusteko eragiketak gertatu ezean, bermatuta dago entitatearen finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako”.

Landua duen txostenean bildutako zenbaki nabarmenekin marraztu zuen aipatu egoera. Iazko abenduaren 31n, sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoak zituen Udalak; guztira, 2,5 milioi euroko aurrezki garbia.

Udalak 4,3 milioi euro zituen diruzaintzako izakin likidoetan. “Asko da Usurbil bezalako herri batentzat”, udal kontuhartzaileak adierazi zuenez.

Zergen ordainketa

Udalbatzar telematikoa hasi berrian, alkatetzako de-

kretuen berri ematerakoan, EAJ-k udal zergen atzerape-naren gaia aipatu zuen.

Udal gobernu taldetik gogorazi zenez, dekretu bidez osasun-larrialdi honi begirako neurri ekonomiko sorta bat onartua du Udalak; tartean, Udalak ematen dituen zerbitzuak kobratzea, ematen ez dituenak ez, edota eman gabe kobratu badira dirua itzultzea. Bestetik, udal zerbitzuen tasen eta prezioen ordainketa epeak malgutasunez atzeratzea bizi dugun larrialdi egoera amaitu artean.

Udalaren eta NOAUA! Kultur Elkartearen arteko hitzarmena beste lau urtez berrituko da

Usurbilgo Udalaren eta NOAUA! Kultur Elkartearen arteko 2020-23 urtera arterako hitzarmena berritzea onartu zuen udalbatzak aho batez, apirilaren 30ean telematikoki egin zuten lehen osoko bilkuran.

Sinatu eta biharamunean indarrean izango da datozen lau urteotarako hitzarmen berria. Aurrekoari, 2016ko martxoaren 21ean sinaturikoari segida emango dio. “Funtsean hitzarmenaren edukiek eta helburuek bere horretan jarraitzen dute”, Agurtzane Solaberrieta alkateak adierazi zuenez. Euskararen erabilera sustatzeko Usurbilgo Udalak parte hartzen duen ekimen anitzetako bat da “NOAUA! K.E.-rekin eta beste hainbat eragilerekin” elkarlanean bideratzen duena.

Aldaketa txiki bat txertatzen da hitzarmen berrian; “KPI-aren igoerari lotutako gehitzea diru ekarpenetan”. Hala, 2020an 56.000 euroko ekarpena egingo dio Udalak NOAUA! K.E.-ri; bai aldizkari, webgune nahiz elkarteari. Eta 58.000 euroko ekarpena urtero, 2021-23 artean.

Diruz laguntzarekin batera, Usurbilgo Udalarrena izan eta prekarioro utzia dion Bordabe-



Aurrekoari, 2016ko martxoaren 21ean sinaturikoari segida emango dio hitzarmen berriak.

EAJ-PNV

Batzorde bat osatzea proposatu zuen EAJ-k, “benetan helburu horiek, euskararen sustapena eta euskal kultura nola bultzatu, ondo betetzen ari garen ikusteko”

rrri 3ko orain arteko NOAUA! K.E.-ren egoitzaren erabilpen epea ere luzatzen da hitzarmenarekin batera. Guztia aho batez onartu zuen udalbatzak.

EAJ, jarraipen batzorde bat osatzaren alde

Udal diru-laguntzen deialdiari

lotuta, udal taldeen eta NOAUA! K.E.-ren arteko batzorde bat osatzea proposatu zuen EAJ-k, “benetan helburu horiek, euskararen sustapena eta euskal kultura nola bultzatu, ondo betetzen ari garen ikusteko”. Mirari Azurmendi jeltzaleak zehaztu zuenez, “NOAUA!k egiten duen lanaren helburuak betetzen ote diren bai ala ez” aztertzeke eskatu zuen jarraipen batzorde berri hau. Horren inguruko azterlana egitea proposatu zuen.

Udal gobernu taldetik eskaera honen helburu eta edukiak zehaztuko zituen proposamen bat landu eta aurkeztea eskatu zioten EAJ-ri, “eta dagokion tokian eta dagokienekin aztertuko da”.

NOAUA! “Kultura teknikariak egiten du jarraipena”

Udalbatzarrak irekiak izan ohi dira. Pleno aretora bertaraten den herritarrek hitza hartzeko aukera izaten du beti osoko bilkuretan. Azken saioa ordea, gogoan izan, bizi dugun egoerak behartuta telematikoki egin zuten lehen aldiz. Zuzenean ikusteko aukera izan zen Udalak Youtuben duen kanalean. Modu berean, telematikoki hitza hartzeko nahia agertu zuen NOAUA! Kultur Elkarteko administrari eta dinamizatzaile Alaitz Aizpuruak.

Udalbatzarra zuzenean ikusteko aukera eskaini izana go-raipatzearekin batera, Udalak eta NOAUA! K.E.-ren arteko hitzarmena aho batez onartu izanagatik ere eskerrak eman zizkien udal taldeei. EAJ-k egitiko proposamenaren aurrean, jada hitzarmenak berak jarraipen hori bere baitan jasotzen duela adierazi zuen. “Kultura teknikariak egiten du”, adierazi zuen Aizpuruak, eta jarraipen batzorde iraunkorra da. Halere bilgune berri horretan parte hartzeko prestasuna agertu zuen. “Oraindik ez dut uste halako jarraipen batzorderik beste inorekin osatu denik, baina guk aurrenekoak izaten ez dugu inolako arazorik”.

Udal mikrobusa, Tolosaldea Sahararekin elkartearentzat

Usurbilgo Udalaren “2529GJM” matrikuladun mikrobusak “bidaia” berriari ekingo dio laster. Udal inbentarioan jasota dagoen ibilgailuari baja eman eta Tolosaldea Sahararekin elkarteari dohaintzan ematea proposatu zuen udal gobernu taldeak.

Agurtzane Solaberrieta alkateak adierazi zuenez, izan ohi zituen matxurak tarteko “udal erabilerarako ez zen baliaga-

ria”. Tolosaldea Sahararekin elkarteak mikrobuseri beste erabilera bat emateko proposamena egin zion. “Egokitzen jotzen genuen elkarte honi dohaintzan ematea”, alkatearen esanetan.

Tolosaldea Sahararekin elkarteak laguntza humanitarioa eskaintzen dio saharar herritari. Hango herritarrekin giza eta kultur hartuemanak indartzea du xede baita, helburu ge-

hiagoren artean.

Mikrobuseren egoeraz

“Ez gaude ados honekin”, adierazi zuten EAJ-tik. Matxurak izan ohi dituen mikrobusa izanik, “saharar herrialdera bidaltzeko arazoak izango lituzkeela iruditzen zaigu eta agian beste erabilera bat eman beharko litzaiokeela”.

Adierazpen hauei erantzunez, alkateak adierazi zue-

nez, “pentsatu nahi dut dohaintzan ematen dugun ibilgailu baten egoera ona dela, ez agian udal beharretarako baina bai beste behar batzuetarako, eta ez diogula inori emango ibilgailu bat oso egoera txarrean egonda. Kasik ziurtatu dezaket hori horrela dela”. Proposamenaren aurka bozkatu zuen EAJ-k. EHBilduk eta PSE-k alde.

Ugartondoko Txirikorda proiektua gauzatzeko hitzarmen berri bat

Etorkizunean Ugartondon kokatuko den belau-naldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektuan urrats berri bat eman zuen udalbatzak apirilaren 30ean egin zuten osoko bilkura telematikoa. Udala eta “eremuko hitzarmen-batzarraren” arteko hitzarmen berri bat izenpetzea onartu zuten.

Hitzarmen honekin Txirikorda proiektua gauzatzeko helburuok bete nahi dira; “dagokion eraikuntza-obra eta aipatutako partzelaren urbanizazio-obra finantzatu eta gauzatzea”.

Urrats berri bat gai honek egin duen ibilbide oparoan. Txirikorda, belau-naldi arteko etxebizitza komunitarioak aurrez Udalak eginiko lanketatik azaleraturiko bi kolektiboen beharrei erantzun nahi die; batetik, emantzipatu eta bizi proiektu propioa izateko beharra duten 18-30 urte arteko gazteei; bestetik, bakarrik bizi eta mugikortasun arazoak, edota autonomia garatzeko zailtasunak dituzten adinekoei.

Aurreko legealditik lanketan

Egitasmo berritzailea eta aitzindaria dugu Usurbilgoa, Euskal Herrian bakarra, “Europar oso garatuak daudenak”. Alkateak azken udalbatzarrean gogorarazi zuenez, “administrazio publikoen betebeharra



Gehiengo osoz onartu zen hitzarmena, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstentitu egin zen.

TXIRIKORDA

**“Usurbilgo
egitasmoa berritzailea
eta aitzindaria dugu.
Euskal Herrian bakarra,
baina Europar oso
garatuak daude”**

da etxebizitza eskubidea bermatzea, oinarrizko eskubidea baita. Zer esanik ez, gazteena, eta Udalak hori bere gain hartu behar du zalantzarik gabe”.

Proiektu hau definitzeko iaz, 2019ko urtarriletik udaberri partera arte, parte hartze prozesua bideratu zuen Udalak Hiritik At Kooperatibarekin batera, aipatu bi kolektiboetako kideak biltzen dituzten norbanako nahiz eragileekin.

Aurreko legealdi amaieran izan zen hori. “Aurreko udal gobernu taldeak ausardia handia izan zuen eta bat egiten dugu proiektuarekin”. Egungo udal gobernu taldea jardunean hasi zenean, aurreko taldearen “proiektu sozial definitua eta hirigintzako aurreproiektua” jaso zituzten.

Ordutik, iaztik, azken udalbatzarrean onartu zuten hitzarmenaren lanketari ekin zioten.

Hitzarmen honen baitan, Ugartondoko hitzarmen-batzarrak proiektua gauzatzeko proiektua, maiatzarako aurkezteko konpromisoa hartzen du. Gero, Eusko Jaurlaritzaren ekipamendu dotazioaletarako diru-laguntza deialdira aurkezteko, proiektua ia %100ean finantzatzea ahalbidetu dezake, udal gobernu taldearen

esanetan. Hitzarmen batzarrak 1.423.000 euro ordainduko ditu lau epeetan: %25a hitzarmena sinatzean, %25a obra esleitutakoan, %25a eraikinen egitura gauzatutakoan, gainerako %25a eraikuntza-lanak amaitzean.

Ordenantza berria

Urte hasieran jendaurrean aurkeztu duten 2020ko Legealdiko Planak jasoa duen moduan, Txirikorda proiektuko etxebizitzaren esleipen baldintzak edota beste hainbat xehetasun zehazteko parte hartze prozesua egitea aurreikusia zuen udal gobernu taldeak. Lanketa honen hastekoak zirela adierazi zuen alkateak osteguneko udalbatzarrean, bizi dugun ezohiko egoera “gertatu ez balitz”. Baina egitekoa dute noski.

Garbitaniarekin zuen hitzarmena berrituko du Udalak

Udalak eta Garbitaniak zuten hitzarmena berritzea erabaki zuen udalbatzak, iragan astean telematikoki eginiko osoko bilkuran.

Hitzarmenaren bidez, “helburua litzateke, harremana egituratzea eta sortutako eskubide eta betebeharrak

zehaztea”, Lur Etxeberria zinegotziak adierazi zuenez. Horrekin batera, 2020ko jardueraren plan orokorrak “alor teknikoa eta ekonomikoa jasotzen ditu”.

Berrikuntzarik ez dakar

Udal gobernu taldearen esanetan, hitzarmenak ez dakar berrikuntzarik, “funtsean ez da ezer aldatuko. Harremana formalizatzeko modu bat da”, Hernani eta Astigarragako Udalek egin duten moduan.

Proposamenon aurka bozkatu zuten oposizioko taldeek. EAJ-ren bozeramaile Josune

netan, hitzarmenak ez dakar berrikuntzarik, “funtsean ez da ezer aldatuko. Harremana formalizatzeko modu bat da”, Hernani eta Astigarragako Udalek egin duten moduan.

Urkolaren esanetan, “guk Usurbilgo zabor bilketa berrantolatuko genuke. Ez gara Garbitaniaren aldekoak. Beraz kontra bozkatu dugu”. PSE-ren udal ordezkariak ere aurka bozkatu zuen. Udal gobernu taldekoen babesarekin, gehiengo osoz onartu zen proposamena.

Esther Arrojeriak beste bi urtez jarraituko du Super Amara Bera Bera taldean

Super Amara Bera Bera taldea hasi da denboraldi berria izango dena prestatzen. Apirilaren erdialdean Imanol Alvarez entrenatzailearen kontratua luzatu zuen eta aurreko astean gauza bera egin zuen Esther Arrojeria jokalariren kontratuarekin. Datozen bi denboraldietan ere, elitean izango da usurbildar jokalaria.

Abuztuan zortzi urte beteko dira Super Amara Bera Bera taldearen lehen taldera iritsi zenetik. 2012ko urrian egin zuen debuta baina 2013-2014ko denboraldian sendotu zen lehen taldean, zentral gisa. Gaur egun, taldeko bigarren kapitaina da Esther Arrojeria. “Oraindik gaztea izan arren, Espainiako nahiz Europako lehiaketetan eskarmen-tu handia duen jokalaria da”. Taldeko jokari garrantzitsuenetako bat da gaur egun. Izan ere, usurbildarrak 205 partida jokatu ditu: 152 Ligan, 28 Europan, 21 Kopan eta 4 Superkopan. 531 gol sartu ditu guztira.

Beste bi urtez jokatuko du Super Amara Bera Beran

Kontratua luzatu berritan, pozik eta ilusionaturik dagoe-la adierazi zuen Arrojeriak.



Abuztuan zortzi urte beteko dira Super Amara Bera Beraren lehen taldera iritsi zenetik.

ESTHER ARROJERIA

“Etxean egongo naiz beste bi urtez, eta talderik onenetarikoan. Ezer gutxi gehiago eska dezaket”

“Beste bi urtez egongo naiz nire etxean eta talderik onenetarikoan, ezer gutxi gehiago eska daiteke” azpimarratu zuen klubeko iturrien bitartez.

Aurtengo denboraldia amaitutzat eman daiteke

Aurtengo denboraldia bertan behera uztea erabaki zuen

Espainiako Eskubaloien Federazioak orain egun gutxi. Esther Arrojeriaren ustez, “hankamotz gelditu da lehiaketa. Denok denboraldia amaitzea nahi genuen baina egoerak ez du bermatu”. Taldeak bezala, jokariak hurrengo denboraldia du buruan: “hau esatea ez nuen espero, baina aurrendenboraldia hasteko irrikari nago. Berriro entrenatzeko eta jokatzeke gogoz nago”.

“Lan ona egin dugu aurten”

Usurbilgo jokalariren ustez, denboraldi ona osatu du Super Amara Bera Bera esku-baloia taldeak. “Sei jardunaldi

falta zirela, partidariak galdu gabe geunden Ligan. Bi berdinketa baino ez. Eta hori Bera Beran ez da sekulan eman”. Europako lehiaketari dagokionez badu arantza bat. “Dena den, taldea berria zela kontuan hartuta, lan ona egin dugula uste dut, lortu nahi genuen jokotik gertu”.

Aldagelan gero eta pisu handiagoa du

2020-2021 denboraldiari dagokionez, Estatuko txapelketa guztiengatik borrokatu behar dutela uste du eta “Europar salto bat eman. Taldea izango dugu horretarako”. Usurbildarrak badu beste erronka bat. Bigarren kapitain gisa “urrats bat eman behar dut eta Alba Menendez lan horretan lagundu behar diot”.

Orain arte, Super Amara Bera Berak Imanol Alvarez entrenatzaile, Alba Menendez, Renata Arruda eta Esther Arrojeria jokalariren kontratu berritzeak iragarri ditu eta Alice Fernandes atezainaren fitxaketa. Eli Cesareo eta Maria Prieto O'Mullony jokalariek beste urtebeteko kontratua dute. 2020-2021 denboraldiko taldea hasi da itxura hartzen.

Txirrindularitza probetan aldaketak

Usurbil apirilaren 10ean zeharkatzekoa zen Euskal Herriko Itzulia abuztura atzeratzeko asmoa zuten. Baina ezinbestean, 2021. urtera atzeratu dute. Hurrengo urteko apirilaren 5etik 10era ospatu daiteke, ibilbide beretsuarekin. Donostiako Klasika ere 2021eko uztailaren 31ra atzeratu dute.

La Vuelta lehen etapa, Usurbildik

Espainiako La Vuelta txirrindularitza proba bestalde, Holandatik abiatzeko zen abuztuan, baina azkenean udazkenean egingo da eta Euskal Herriatik hasiko da, Usurbil zeharkatuko duen Irun eta Arrate arteko etaparekin.



Espainiako Vuelta ez da bada atzeratzen, lehen etapa Irundik abiatuko da eta Usurbildik igaroko da.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabilta gurasoei baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuekin eta arduratsuak. 695 747 944

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bistak zoragarriak. 685 727 844.

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoa 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziaagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lanegileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukaintegi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Esperientzia eta erreferentziak

ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Es-



Zorionak Aneee!!!

4 urte potolo bete ditu gure etxeko xomorritak! Ze egun politta pasa dugun! Askok maite zaitugu!



Zorionak, Martina! Maiatzaren 7an 11

urte! Laster ospatuko dugu familiarekin eta lagunekin ere. Muxu handi bat etxekoan partetik, asko maite zaitugu!

perientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuatarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala

lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska ardu-

ratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarina Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak dauka. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kaleza Egunekeko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 07	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 08	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 09	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 10	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 11	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 12	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 13	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Maiatzak 07 - Maiatzak 17

Osteguna 14	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 15	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

08 ostirala

■ Euskaraldiko lagunen emanaldia 'Sortuz, bakardadea isolatuz' zikloan. 19:00etan, Usurbilgo artixtak Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

09 larunbata

■ Ane Azkonobietaren kontzertua 'Sortuz, bakardadea isolatuz' zikloan. 19:00etan, Usurbilgo artixtak Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

10 igandea

■ Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa 12:00etan.

Euskaraldiari buruzko argibideak Usurbilgo Artixten txokoa

Usurbilgo Artixtei esker, sortzaile ugari ezagutu ditugu egunotan. Kultura eta kirol jarduerak izan dira nagusi baina bestelako ekitaldiak ere antolatu dituzte. Aste honetako agenda iragartzearekin batera, ekimena amaitzeaz dela azaldu dute.

“Gutaz libratuko zinetelakoan? Zazpi garren astez jarraian hementxe gara zuen arratsaldeak pozteko helburuarekin!”. Usurbilgo Artixten asteleheneko oharrak honela zioen.

Azken txanpan murgilduko direla, hori ere ohartarazi zuten. Bestelako egitasmorik badute eskuartean, baina hori aurrerago iragarriko dute. Bien bitartean, hauxe da aste honetarako iragarri duten egitaraua.

Maiatzak 7 osteguna

■ Aintzane Iribarrekin solasean.

“Ostegunean, Gestalt terapia zer den ikasiko dugu Aintzane Iribarren eskutik”.

Maiatzak 8 ostirala

■ Euskaraldiko lagunen emanaldia.

“Usurbilgo Euskaraldiko lagunek aurtengo edizioaren inguruko argibideak eskainiko dizkigute”.



Ostiral honetan, Euskaraldiko lagunak izango dira protagonistak.

Maiatzak 9 larunbata

■ Ane Azkonobietaren kontzertua.

“Trikitilariak doinu eta abestiz jantziko du larunbat arratsaldea! Aire aireee!”.

Non ikusi

Saio guztiak 19:00etan hasiko dira eta sare sozial hauetan ikus ahal izango dira:

■ Facebook:

Usurbilgo artixtak orrialdean.

■ Instagram:

@sortuzbakardadeaisolatuz helbidean.

Kontuan hartzekoak

Udajolaserako izen-ematea zabalik da

■ Online egin behar da:

noaia.eus/bereziak/udajolas

■ Maiatzaren 1etik 15era (biak barne).

■ 4-12 urte arteko haur eta gazteei zuzendua. 2019-20 ikasturteko HH 3-LH6-n ikasten aritu direnentzat.

■ Plaza kopurua: Gehienez 200 lagun.

■ Ordainketak Laboral Kutxako kontu honetan, maiatzaren 1etik 15era, haurraren izen abizenak adierazita: ES28 3035 0140 34 1400025811

■ Izena ematerakoan erantsi beharrezko dokumentuak:

-Ordainketa agiria.

-Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.

-Familia ugarien kasuan, Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia.

■ Kuota 85 euro, familia ugarientzako prezioa 69 euro.

■ Oharrak:

-Maiatzak 15, izen emateko azken eguna. Epez kanpikorik ez da onartuko.

■ Informazio gehiago: 688 807 336 / elkarte@noaia.eus

-Guraso-bilera egiterik badago, ekainaren 15ean (astelehena) izango da Sute-giko auditorioan, 17:00etan.

■ Udalekuak uztailean egingo dira, 6tik 30era. Azkenean udalekua ezingo balitz egin, diruaren %100 itzuliko litzateke.



USURBILGO JATETXE ETA TABERNEN ESKAINTZA



EGUNEKO MENUA * EDO KARTA *eramateko*

Eskaerak (11:30-13:00 eta 18:30-20:00)

*eguneko menua astegunez eguerdiro bakarrik

MAIATZAREN 11N TERRAZA ZERBITZUA

943 36 391 39



ESKAERAK
ALDEZ AURRETIK

BERTAN JASOTZEKO:

EGUNEKO PLATERA 6€

EGUNEKO PLATERA + AZKENBURUA 8,5€

BERTAN JASO EDO ETXERA: ARKUMEA ETA TXERRIKUMEA

626 686 036



Etxera DOAN edo JASOTZEO AUKERA!!!
RAZIOAK, OGITARTEKOAK, ETXEKO PIZZAK,
PAELLA, ALBONDIGAK, OILASKO ERREA,
MENESTRA... BERTAKO PRODUKTUEKIN!

686 55 41 45 Santuenea 11, Usurbil



maitzaren 11tik aurrera

EGUNEKO MENUA, KARTA, RAZIOAK
eramateko!!!

·Terraza zerbitzua

(Osasun Sailak eskatutako neurrietan)

943 37 11 50

Laster Usurbilgo taberna eta jatetxe ugari zerbitzua ematen hasiko dira,
zerbitzu hauen eta irekieren berri emango dizuegu

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2020

udaleku irekiak

IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilen erroladatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago. Uztailaren 6an hasi eta 30ean amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Izena emateko epea:

maiatzaren 1etik 15era (biak barne)

Kuota: 85€

Familia ugaria: 69€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia bidali behar da).

Izen-ematea egiteko lotura:

www.noaua.eus/bereziak/udajolas

Gehienezko plaza-kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **HAURRAREN IZEN-ABIZENAK** adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811
(Usurbilgo Udaleko kontua)

Aurkeztu beharrekoa:

(erantsi inprimakia betetzean)

- Ordainketa-agiria
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia
- Familia Ugariaren txartela edo Familia Liburuaren kopia

*Udajolaseko guraso-bilera ekainaren 15ean (astelehena) izango da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 17:00etan.

*Ahal bada eta egoerak uzten duen neurrian

OHARRA: Informazio gehiago elkartea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefonoan.

Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, diruaren %100 itzuliko da.

noaua

